

Ez monarkiarik ezta konstituziorik ere. Demokrazia. Askatasuna. Errepublikak.

Adierazpen hau sinatu dugun indar politikoek Euskal Herriko, Herrialde Katalanetako eta Galiziako milioika herritaren ahotsa eta sentimendua helarazi nahi dugu, Espainiako erregimen monarkikoa onartzen eta babesten ez dugulako. Diktaduraren oinordeko den instituzioa gure nazioen helburu nazional eta sozialak galarazteko funtsezko zutabea da oraindik ere. Monarkiak ez ditu ordezkatzen Euskal Herriko, Herrialde Katalanetako eta Galiziako gizarteak, ezta Espainiako Estatuko beste herrietako milioika herritar ere.

Indar independentista eta subiranistok ez dugu parte hartuko ustelkeria modu sistematiakoan babesten duen eta herritarren interesen aurka doan erakunde zaharkitu, antidemokratiko eta opakoa betikotzeko enegarren ahaleginean. Ez dugu parte hartuko gaur Leonor printzesaren konstituzioaren zinean. Ez dugu parte hartuko Errege Etxearen pribilegioen eta Espainiako Konstituzioaren legitimazioan, gure nazioetako gehiengo sozialen egungo eta etorkizuneko nahiak onartzen eta errespetatzen ez dituelako.

Horregatik, adierazpen hau izenpetu dugun indar politikoek honakoa adierazi nahi dugu:

- Espainiako Monarkia eta haren kideak gure nazioetako herritarren eskubide zibil, politiko eta nazionalak ukatzen dituzte; gainontzeko herritarren aurrean desberdintasun, pribilegio eta zigorgabetasunaren adierazle nabarmenena dira.
- Ez erregeak ezta haren oinordekoek ere ez dute Euskal Herriko, Herrialde Katalanetako eta Galiziako gizartearen zilegitasunik. Horren ondorioz, ez diegu inolako eginkizun politiko edo instituzionalik aitortzen. Inposaketa eta ukapena izan dira hamardaketan zehar monarkiak gure herriei eskaini dizkien errezeta bakarrak, 2017ko urriaren 3an Kataluniako herritarren erabakitzekeo eskubidearen aurka egindako hitzartzean agerian geratu zen bezala.

- Monarkiak eliteak ordezkutzen ditu gehiengo sozialen aurrean; pribilegioak, eskubideen aurrean; erabateko zigorgabetasuna, justiziaren aurrean; diru gosea adierazten du berdintasunaren aurrean eta inposizioa demokraziaren aurrean. Finean, balio horiek guztiak gure gizartearen aurkakoak dira eta ez datoz bat Espainiako Estatuko gehiengo sozialen aldarrikapenekin.
- Berdintasunari, justiziarri, askatasunari eta demokraziari lotutako balio errepublikarrak defendatzen dituzte gure nazioetako herritarrek, eta jakin badakite monarkiaren eta egun indarrean dagoen erregimenaren hausturatik soilik etor daitekeela. Benetako demokrazia bat lortzeko ezinbestekoa da herritar guztien eskubide nazional eta sozialak errespetatzea eta nazioen askatasun eta borondate demokratikoak aitortzea.

2023ko urriaren 31

Esquerra Republicana

Euskal Herria Bildu

Bloque Nacionalista Galego